

PRENTSA OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEN GANEKO ERAKUSKETAK DURANGON AMAITUKO DAU LURRALDEAN EGIN DAUEN IBILBIDEA

- “Bizkaiko Batzar Nagusiak, ezagutuz” erakusketea gaur goizean inaugurau da Durangoko Landako plazan, eta bertan egon dira Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria, Ima Garrastatxu Urbaneja Durangoko alkatea eta Mahaiko kideak.
- Erakusketea Durangaldeko udalerrian egongo da garagarri osoan.

(Durangon, 2021eko garagarriaren 1ean). “Bizkaiko Batzar Nagusiak, ezagutuz” erakusketak Durangon itxiko dau lurraldean zehar egin dauen ibilbidea. Garagarriean zehar, bizkaitarrei Europako sistema parlamentario zaharrenetako baten garrantzi historiko, sozial eta kulturala erakutsi deutesen erakusketa ibiltaria Landako plazan egongo da.

Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak eta Ima Garrastatxu Urbaneja Durangoko alkateak, Mahaiko kideakaz eta udalerriko zinegotziakaz batera, Bizkaiko Batzarrek sustatutako erakusketea inaugurau dabe gaur goizean Landako plazan. Erakusketea Bizkaiko beste eskualde batzuetako herrietan egon da ikusgai, horreen artean Bilbon, Getxon eta Portugaleten.

Erakusketa ibiltaria Portugaletetik abiatu eta bere azken helmugara iritsiko da: Durangaldeko eskualdearen bihotzera. Bidaia hori beharrezkoa da XIV. mendetik erakunde hau lurraldeko gorabehera nagusien protagonista eta lekuko bihurtu dala adierazten daben argudioak zabalteko.

“Bizkaiko Batzar Nagusiak, ezagutuz” erakusketea formatu handiko 12 panelek osatzen dabe, eta erakunde parlamentario moduan daukan eskumen-egitura zabala azaltzen dau, eta baita batzen dauen kultur ondarea be. Erakusketan ibilbide xume bat eskaintzen da bere lau egoitzetako (Bilbo, Gernika, Abellaneda eta Gerediaga) eukietatik, Gernikako Batzarretzean zehaztasun handiagoagaz geldituz, Gernikako Arbolea demokraziaren, askatasunaren eta bakearen euskal sinboloaren babeslekua dalako.

Erakusketea barriro inauguratuko ekitaldian Ana Otadui Biterik azpimarratu dauenez, erakusketak *“Batzarrek daukien betebeharrak parlamentarioan eta gordetzen daben ondare kultural aberatsean sakondu gura dau”*. Persona askorentzat ezezaguna da, ordezkari politikoek –51tik 10 Durango-Arratiako barrutikoak dira– *“egunez egun guran eragina daukien”* erabagi garrantzitsuak hartzen dituen arren. Halanda be, *“badakigu gu garanaren eta egiten dogunaren ganean ezjakintasun handia dagola”*, gogorarazo dau Otadui, *“eta horregaitik, kalera urtetako ahalegina egin dogu”*, *“Batzar Nagusiek beteten daben funtzino parlamentarioa eta gordetzen daben kultur ondare aberatsa*

azaltzeko, azken batean, bizkaitar guztien kultur ondare aberatsa dalako”.

Beste alde batetik, Ima Garrastatxu Urbaneja Durangoko alkateak, udalbatzako hainbat kidegaz batera, nabarmendu dauenez, *“Bizkaiko Batzar Nagusiak lurralde honetan dagozan sentsibilidade desbardinak batzeko lekua dira, eta, batez be, lurralde historikoetan daukaguzan elementu bereizgarriak dira. Durangaldean Gerediagako Batzar Etxea daukagu, Bizkaiko Batzar Nagusien hiru egoitzetako bat, Gernika eta Abellanedakoagaz batera. Batzar Nagusien zeregina oso garrantzitsua da bizkaitarrontzat, bertan lurraldeko ahots desbardinak irudikatzen diralako; horregaitik da hain garrantzitsua haren historia ezagutzea.”*

NOTA DE PRENSA

LA EXPOSICIÓN SOBRE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA CIERRA EN DURANGO SU PERIPLO POR EL TERRITORIO

- La muestra “Las Juntas Generales de Bizkaia, conócelas” se ha inaugurado esta mañana en la plaza Landako de Durango, en un acto que ha contado con la presencia de la Presidenta de la Cámara vizcaína, Ana Otadui Biteri, la Alcaldesa de Durango, Ima Garrastatxu Urbaneja, y los miembros de la Mesa.
- La muestra permanecerá en el municipio de Durangaldea durante todo el mes de julio.

(Durango, a 1 de julio de 2021). La muestra “Las Juntas Generales de Bizkaia, conócelas” cerrará en Durango su periplo por el territorio. La plaza Landako acogerá durante todo este mes de julio una exposición itinerante que ha mostrado a vizcaínos y vizcaínas la relevancia histórica, social y cultural de uno de los sistemas parlamentarios más antiguos de Europa.

La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui Biteri, y la Alcaldesa de Durango, Ima Garrastatxu Urbaneja, acompañadas de miembros de la Mesa, y de concejales, han inaugurado esta mañana en la plaza Landako la muestra promovida por la Cámara foral que ha estado expuesta en localidades de otras comarcas de Bizkaia como Bilbao, Getxo y Portugalete.

La exposición itinerante sale de la villa jarrillera para llegar a su último destino: el corazón de la comarca de Durangaldea. Un viaje necesario para desplegar los argumentos que han determinado que esta institución se haya convertido en protagonista y testigo de los principales avatares del territorio desde el siglo XIV.

“Las Juntas Generales de Bizkaia, conócelas”, se conforma a través de 12 paneles de gran formato, donde se explica la amplia estructura competencial como institución parlamentaria y también el patrimonio cultural que atesoran las Juntas. En la exposición se ofrece un sencillo recorrido por el contenido de sus cuatro sedes (Bilbao, Gernika, Abellaneda y Gerediaga), parándose con más detalle en su sede principal, la Casa de Juntas de Gernika, por ser refugio del símbolo vasco de la democracia, la libertad y la paz, como es el Árbol de Gernika, y del cuadro “El Besamanos” de Francisco de Mendieta que preside el salón de plenos y que ha sido considerado el primer retrato colectivo de mujeres del arte europeo.

En la reinauguración de la muestra, Ana Otadui Biteri ha destacado que la exposición “*trata de incidir en la función parlamentaria y en el rico patrimonio cultural que atesoran las Juntas*”, algo que es desconocido para muchas personas pese a que sus representantes políticos -10 de 51 pertenecen a la

circunscripción de Durango-Arratia- toman decisiones importantes *“que nos afectan día a día”*. A pesar de todos esto, *“somos conscientes de que hay un gran desconocimiento de quienes somos y lo que hacemos”*, ha recordado Otadui, *“por eso nuestro empeño en salir a la calle”*, para explicar *“tanto la función parlamentaria como el rico patrimonio cultural que atesoran las Juntas, que en definitiva es el rico patrimonio cultural de todos y todas las vizcaínas.”*

Por su parte, la alcaldesa de Durango, Ima Garrastatxu Urbaneja, acompañada de integrantes del pleno municipal, ha destacado que *“las Juntas Generales de Bizkaia son un punto de encuentro de las distintas sensibilidades que hay en este territorio y, sobretodo, son un elemento diferenciador que tenemos en los territorios históricos. En Durangaldea tenemos la Casa de Juntas de Gerediaga, la cual, junto a la de Gernika y Abellaneda, es una de las tres sedes de las Juntas Generales de Bizkaia. El papel de las Juntas Generales es muy importante para las y los bizkaitarras, ya que allí se representan las distintas voces del territorio, por eso es tan importante conocer su historia.”*